

Bermeo Uria VI. Narrazio lehiaketaren sari banaketa, etzi

Zortzi eta hemezortzi urte arteko eskoletako umeeek parte hartzen dute lehiaketa horretan.

N. SALAZAR

Bermeo Uria VI. Narrazio lehiaketako sariak banatuko dituzte datorren zapatuan Nestor Basterretxea aretoan, 12:00etan.

Zortzi eta hemezortzi urte arteko ikasleei zuzendutako lehiaketa da Joxe Miel Barandiaran Udal Liburutegiak antolatu eta zapatuan sarituko dutena.

Ikasle guztien parte-hartzea

San Frantzisko herri ikastetxeko, Sagrado Corazon ikastetxeko, Luis Eleizalde ikastolako eta institutuko ikasleek parte hartu dute lehiaketan. Liburutegitik adierazi dutenez, irabazleak aukeratuta daude dagoeneko, baina zapatuan emango dituzte jakitera euren izenak.

Eskolek eurek egiten dute lehenengo hautaketa bat, adierazi dute antolatzaileek. Euren ustez hoberenak direnak aukeratu eta liburutegira ekartzen dituzte. Ikastolako eta Sagrado Corazon ikastetxeko bina irakasle eta Santi Munitiz Kokotxa taldeko kidea, Aritz Abaroa Institutuko aspaldiko irabazlea eta iaz Erroxaperen bigarren saria eskuratu zuen Nekane Arrieta dira epaimahaikideak.